

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko urriaren 20an egindako bilkuran, 489/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Okupatu beharrekoa den eremua handitzea proiektu honen zabortegietarako: “A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik xehakatur: A-625 errepidea 359,650 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua”

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 842/2010 Erabakiaren bidez onetsi egin zen “A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura proiektu aldatuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda” eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu zen, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Proiektu hau gauzatzeko, aurreikusita zegoen obretan sobera diren materialetarako zenbait biltoki egin behar izatea. Hala eta guztiz ere, helburu hori betetzeko lurrak okupatu beharrak, alde batetik, eta, bestetik, behin betiko desjabetzeak eragindakoen nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak etorkizunean mantendu ahal izateko ekarriko lukeen ondorio kaltegarria, hainbat kalteak adierazia, ahal den neurrian murrizteko aukera emango zuen konponbideren bat bilatzeak, azken emaitza izan zuten 525/2011 Erabakia, irailaren 27koa, eraginpeko jabeekin desjabetze hitzarmen batzuk berretsi zituena, proiektuan soberakin biltegiarako aurreikusitako behin betiko okupazioen ordez aldi baterako okupatu eta gero baldintza egokietan berreskuratzeko.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatuaren proiektu xehatua baita, eta, halaber, bere horretan utzi zen proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren behin betiko onespina (I. eranskina).

Egoera horretan daude, besteak beste, espedienteko 53/000 eta 59/000 finkak, eta Errepideen Zerbitzuak horiei buruzko txostena egin du 2020ko ekainean, eduki honekin:

“Juan Antonio Aldama jaunak, desjabetze espedienteko F53/00 eta F59/00 finkak lantzen dituen aldetik, azaldu du “proiektuan jasota ez dagoen azalera bati” eragiten diotela obrek. Hori dela eta, “Proiektuan jasota ez dagoen eremu horretako kalteak baloratzeko eta dagokion kalte-ordaina emateko” eskatzen du, gaur egun ezin baita erabili”

Adierazi bezala, proiektuak finka horien zati bat aldi baterako okupatzea aurreikusten du, V3a zabortegia instalatzeko. Aipatutako zabortegiak aldi baterako okupatu ez dituen bi finken zatiari dagokionez, argitu behar da eskatzaileak aipatzen duen eragina zeharkakoa dela, hau da, ez dela zabalgunerik egin, ez hondeatu, ez eta lanek zuzenean eragin ere, baina egia da laborariak erabaki duela ez erabiltzea aziendarentzako larre gisa, azaleratik hurbil dauden makinaren joan-etorriak nolabaiteko eragina (zarata, hautsa) izan lezakeelako.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da, laborariak azaldutakoa kontuan hartuta, dagokion moduan ordaintzea une honetara arte aldi baterako okupatu gabeko finka horien zatiari eragindako zeharkako eragina, eragin epetzat V3a zabortegia instalatzeko partzelak okupatu ziren egunetik aurrera hartuta, hau da, 2019ko apirilaren 15etik aurrera.

Gainera, azalera horiek aldi baterako okupatzea proposatzen da, V3a zabortegiaren paisaia integrazioa hobetzeko. Horretarako, aldi baterako okupazio berri horren zati bat erabiliko da zabortegiaren azalaren kota apur bat doituta lursailaren malda leuntzeko, obrak eta aldi baterako okupazioa amaitu ondoren lurzatiaren ustiapena hobetze aldera. Horrela, zabortegiaren edukiera ere handitzen da. Aldi baterako okupatzea proposatzen den finka horien azalaren planoa erantsi da.

Horrenbestez, hark egindako eskaera baiestea proposatzen dugu, eta F53/00 eta F59/00 finketan izandako zeharkako eragina ordaintzea proiektuak 2019ko apirilaren 15etik une honetara arte aldi baterako okupazioa aurreikusten ez zuen zatian. Halaber, baiesten da aldi baterako okupazioa handitzea, azalera horiek sartzeko, eragindako ondasunen eta eskubideen zerrendaren arabera, F53/00 eta F59/00 finkek osorik aldi baterako okupatu daitezela V3a zabortegia amaitu arte."

Finka berei dagokienez, Errepide Zerbitzuak txostena egin du 2020ko uztailaren 24an, 2019ko apirilaren 15etik zegoen aldi baterako okupazioa luzatzeko eskatuz, eduki honekin:

"Txosten horretan, besteak beste, eskaera baiestea proposatzen zen, "F53/00 eta F59/00 finketan izandako zeharkako eraginaren kalte-ordaina ordainduz, proiektuak 2019ko apirilaren 15etik aipatutako txostenaren egunera arte aldi baterako okupazioa aurreikusten ez zuen zatian". Bada, argitu behar da praktikan "zeharkako eragin" hori partzelaren aldi baterako okupazioa izan dela; izan ere, esan bezala, laborariak ezin izan du partzela erabili obretako makineria bertatik igarotzen delako, sortutako beste afekzio batzuk gorabehera (zarata, hautsa, lokatza, etab.), eta, beraz, 2019ko apirilaren 15etik aurrera ordaindu behar da aldi baterako okupazio hori.

Horrenbestez, aldi baterako okupazioa handitzea proposatzen da, azalera horiek barne hartzeko, F53/00 eta F59/00 finkek osorik aldi baterako okupatu daitezela, 2019ko apirilaren 15etik V3a zabortegia amaitu arte."

Bestalde, proiektuko 58/070 finkaren aldi baterako okupazioari dagokionez (hura ere zabortegi gisa erabiltzen da), Errepide Zerbitzuak txostena eman du 2020ko uztailaren 23an, honako eduki honekin:

"Proiektu horrek lursail batzuen zati bat aldi baterako okupatzea aurreikusten du, V3a eta V3b soberakinen zabortegiak instalatzeko. Hala ere, desjabetze espedientearen izapidetzean, handitu egin da, jabeek hala eskatuta, aldi baterako okupatu den azalera, proiektuaren planoen arabera behar-beharrezkoa dena, eragindako lurzati gehienak osatu arte. Hainbat txostenetan adierazi den bezala, lursail batzuk bideraezinak izango dira nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenerako, besteak beste: (i) gainerako azalaren forma irregularragatik; (ii) lurzati beraren soberakinak aldi baterako bananduta geratzeagatik; (iii) sarbiderik gabeko lurzati soberakinak geratzeagatik; eta (iv) lurzati soberakinak ustiatzeko zailtasunengatik, bai nekazaritzako lanak egiteko, bai abeltzaintzako lanak egiteko (hautsa, zarata, makinaren joan-etorria, etab.).

Gainera, azalera horiek handitzeak zabortegiak hobeto integratzea ahalbidetzen du, azalera erregularizatu eta eragindako lursailaren eta eraginik izan ez duen lursailaren arteko sestra aldaketak leundu ahal izateko.

Horren ondorioz, eta V3b zabortegiak okupatutako zenbait lurzatiaren aurreabisua jakinarazteko beharra Administrazioako Zerbitzu Juridikoari helarazi ondoren, aldi baterako okupatuta dagoen azalera handitzea proposatzen da, jarraian zehazten den moduan eta erantsitako planoarekin eta zerrendarekin bat etorriz.

FINKA	POLIGONOA	LURZATIA	UDALERRIA	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA HANDITZEA
58-170	7	110	Amurrio	8.520,59 m ²

Horrenbestez, aldi baterako okupazioa handitzea proposatzen da, azalera horiek barne hartzeko, atxikitako ondasunen eta eskubideen zerrendaren arabera (erantsita doa), F58/07 finka osorik aldi baterako okupatu dadin, une horretatik V3b zabortegia amaitzen den arte.”

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hori garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Azkenik, desjabetze espedientea presako prozeduraren bidez izapidetu denez, esan beharra dago ezen, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz premiaz okupatu behar hori egikaritzen diren proiektuen handitzei ere aplikatu behar zaienez, bidezko dela behin-behineko okupazioak handitzeko izapideei ekitea presako prozeduraren bidez.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Handitzea okupatu beharrekoa den eremua proiektu honen zabortegiatarako: “A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektua, beste honetatik xehakatur: A-625 errepidea 359,650 kilometrotik 354,22 kilometrora egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua”. Honi erantsitako eranskinean daude xehetasunak.

Bigarrena. Izapidetzea ondasun eta eskubide horien desjabetzea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan jasotako presazko prozeduraren bidez.

Hirugarrena. 20.837,53 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko “Desjabetzeak” 50106.5300.6000002 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-3514/000.20.1.20), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetzaren Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori gorago aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrio Udaletzeko lokaletan ager daitezten, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

A-625 ERREPIDEA 357,30 KILOMETROTIK 354,22 KILOMETRORA (BIZKAIKO MUGA) EGOKITZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA, ZEINA A-625 ERREPIDEA 359,65 KILOMETROTIK (AMURRIOKO EKIALDEKO SAIHESBIDEAREN HASIERA) 354,22 KILOMETRORA EGOKITZEKO TRAZADURA ALDATUAREN ERAKUNTZA PROIEKTUAREN PROIEKTU XAHATUA BAITA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 357,30 Y EL P.K. 354,22 (LÍMITE DE PROVINCIA CON BIZKAIA), DESGLOSADO DEL DE CONSTRUCCIÓN MODIFICADO DE ACONDICIONAMIENTO DE LA CARRETERA A-625, ENTRE EL P.K. 359,65 (INICIO DE LA VARIANTE ESTE DE AMURRIO) Y EL P.K. 354,22.

2006.217-F

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK			UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA M2		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURSAILA	DATOS CATASTRALES			B. BEHINEKOAN	SUPERFICIE AFECTADA M ²		
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	POLIGONO	PARCELA	AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO			DÍA	HORA	
53/200	ALDAMA PEREZ DEL PALOMAR, Juan Antonio	7	551	AMURRIO	ZELAIA / PRADERA	1.122,00		3/12/20	10:00	
58/170	ALDAMA PEREZ DEL PALOMAR, Juan Antonio	7	110	AMURRIO	ZELAIA / PRADERA	8.520,59		3/12/20	10:00	
59/300	ALDAMA PEREZ DEL PALOMAR, Juan Antonio	7	125	AMURRIO	ZELAIA / PRADERA	7.891,00		3/12/20	10:00	